



JOLAS LIBREA

	 10 min
MATERIALA: Ø	

AZALPENA

Alfonbraren gainean jostailu sinbolikoak paratu (animaliak, sukaldetresneria, garraioak, pertsonaiak, telefonoa ...). Jolas organizazioari erreparatu.

Zakar poltsa batean jostailu bana sartu. Elkarri pasa eta bakoitzak bat hartzen du. Jolas libreari ekin.

Itxi begiak. Bakoitzari objektu bat jarri. Objektua jolas egiteari lotu.



PERTSONAIA EZKUTUA

	 10 min
MATERIALA: Ø	

AZALPENA

Ikasle batek pertsona famatu eta ezagun batena egin behar du. Beste lagun batzuek galderak egingo dizkiote nor den asmatu arte. Itxura egiten ari denak “pertsonaia” ezkutuaren ezaugarri nabarmenenak ezagutu behar ditu. Hori, nahi bada, aldeztu aurretik presta liteke talde lanean.

Adibidez: - Zer zara, gizona ala emakumea?

- Gizona.
- Oraindik bizi zara edo hil zinen?
- Hila nago.
- Gerran ibili zinen?
- Bai.

ALDAERAK

Joko bera egin daiteke animalia edo gauzaren bat aukeratuz.

Adib: Hegalaria zara?

Oihanean bizi zara?

Koloreduna zara?



PISTAK EMAN

	 10 min
MATERIALA: Ø	

AZALPENA

Gauza ba pentsatu behar du jolaskide batek. Besteek galderak egingo dituzte, baina erantzunak BAI edo EZ bakarrik izan daitezke.

Adibidez: eman dezagun BONBILA hitza pentsatzen dugula.

Galderak: * Gela honetan dago?

- Oso handia da?
- Denok daukagu?
- Egurrezkoa da?

ALDAERAK

Asmatzen oso zaila gertatzen bada, beste argibide batzuk ere emango dira. Esaterako: * Goiko aldean dago

- Arratsaldean behar izaten da.